

# NAFAR - IZKUNTZAN ORRIA

## EUSKALERRIAN BARN

### UDAKO «EUSKERA» IKASTALDIK

Datorren udarako bi euskeraz irakasteko ikastaroak presaturatu dire gure Euskal-Herrian. Bata Bilboko Deustuko Unibertsitatean hango «Euskal Kultura Mintegia»-k antolatutako; eta bestea Balonnan hango «Alfabetatzeko Batzordea»-k antolatutako.

Deustuko ikastaroari joatekotan daudenak esan behar dute lau klasetakoak izanen direla, hau da lau ikasturtekoak. Lehenbizkkoa: euskeraz hitzitz ere ez dakitenentzako. Bigarrena: euskeraz zerbait dakitenentzat. Irugarrena: euskeraz mintzatzen badira ere ez dakitenentzako.

zaten; eta laugarrena: Alfabetatzeko ikastaro utsu da, zergatik da sortzez euskaldunak izanirik oraindik irakurtzen eta idazten ez dakitenentzat baita.

Deustuko ikastaroen egunak hauek dira: Uztailaren 16an Ligarren egunetik 31era, eta Abuztuaren zazpi egunetik 31era. Batzuk lau ordu eguneko eta beste batzuk sei ordu eguneko.

Edozein joan daiteke kurso hauetara. Xeketasunak Deustuko «Euskal Kultura Mintegia»-ri (Deustuko Unibertsitatea) eskatu, edo Euskaltzaindiari (Ribera Karrantza, 6, Bilbon).

Bayonako ikastaroaren berri eta xehetasunak nahituenek...

zuzenbide hauetara eska dezake «Alfabetatzeko Batzordea» 32, Rue Bourgneuf C.C.P. Mendebaldeko Bayonne. Hemen ere bi motako ikastaroak emango dira: Euskeraz dakitenentzako eta euskeraz ez dakitenentzako.

### EUSKALTZAINDIAREN OHARRA

Euskal Akademiaren Prensako Ofizian Agiri bat igorri digu. Hona hemen gaita eta berak esaten diguna: Aditzailearen batasuna, egina. Apirilaren 6 eta 7n Euskaltzaindiak bilgura bereziak, antolatuta dituen batasun...

lana aurrera eramateko. Aditzaile bakoitzak bere bereziki dute bilkura horietan. Inazko uztailaren egindako jardueren segida izan dira oraingo hauek. Haiek Arantzazu, haiek berriz Bilbon, Euskaltzaindiaren etxean egin dira. Bilkura hauen ondorioa izan da aditzaile guztien zuzenbide formak, buru ematen zaitela. Beraz, urrats handi bat egin da batasunerako bidean.

Onarturik izan diren aditzaile formak euskaltzain oso gutxiel (Bilbora etorri diren), eta orotzerik izan ez dutenak) bi daliko zaizkie, oharrek egiteko epe bat emanen. Ohar horiek jaso eta aztertu ondoren, aditzaile bakoitzak bere bereziki...

tifikazioa) eskatuko zaio Euskaltzaindiari. Birrespen hori iritxi bezain laster, Euskaltzaindiak berak egingo du aditzaile honen argitaratze ofiziala.

### JOAN BAUTISTA GAMIZ ZENA

Arestin Euskaltzaindiak Arabako Sabandoko herrixkan bertako seme eta euskal Cierkari (poeta) zen Joan Bautista Gamiz Jesulagun zenari omenaldi nabari bat eskaindu zion.

Joan Bautista Gamiz zena euskeraz idatzitako bertso irakurtari antolatuta zuten bere garaiaren gure erabarra 1696 urteko Apirilaren zortzigarrenean gure mundura etorri z...

traigun, 1773 ko Apirilaren 28an Italiako Boloniam hirik aurtentzen bada bere il zenetik berrehun urte bete izan dira. Arabako Diputazioak Euskaltzaindiaren batasun nahituz izan zuten bere laguntza eta kerizpe eman arazotzat haur goraldu, eta oroitut beharrez. Bera sortu zan herrian oroiturri bat jarri zuten euskeraz eta orozar idatzia.

Arabako euskal idazleak guk izan badira eren hemen dugu bat eta ongia Arabako seme hontaz oroitzea. Zorion berok Arabako Diputazioaren dako, baita ere gure Euska! Akademiarentzako esama tu eta egin dutenengatik.

IKUSLE

# AXULAR SARIA

## ERDI EROA

elizara eta apezak alde egin zion:  
—Zenbat denbora da konfesatu zinez?  
—Ez naiz gogoratzen, orain badakizu erdi eroa naizela ta orrengatik ez naiz gogoratzen. Ta apezak erran zion:  
—Erdi eroa, galxoa ta pekatuak egin duzu?  
—Ez ba erdi eroa naiz ta.  
—Erran behar dazut erdi eroa naizela ta.  
—Bai, bai ta zerbait hartu al duzu? Inori zerbait kendu al diozu?  
—Ez kendu ez, hartu, erdi eroa naiz eta inoren etxean hartu ta neronen etxera eramaten dut.  
—Al ta zeroren etxean hartu ta bestetren etxera eramatea ez al zazu in-iz bururatu?  
—Hori egingo banu ero eroa izango nitzake.

ULIAN ELIZALDE. 12 urte

Arizkun-go Eskolako

## IPUINA: HIRU TXERKIENA

Egun batean mendian omen zegoen txabolak bat, eta bizi ziran txerriak, bejak eta zaldiak.

Atera ziran hiru txerri eguzkia hartzera eta eginzan iluna eta esan zun Putteak:  
—Goazen egitera etxeak.  
Eta esan zun:  
—Pittek nik belarrezkoa, Pott ek nik egurrezkoa eta Puttekek nik arizkoa.  
Pitt, ek laister bukatu zun eta Pott, ek ere bai, etan esan zioten:  
—Aizu Putt bukatu duzu?  
—Ez.  
Berriz:  
—Aizu Putt bukatu duzu.  
—Bai.  
Eta hasiziran joisten.  
Belaxe ikusi zuten sasi bat multzen eta esan zun. Pitt, ek:  
—Orj txakurbat da.  
—Ez hori kutubat da.  
Eta Putteak:  
—Ez hori otsoa da.  
Sartu ziran arizko etxean eta eskarrak, otsoa zan.

AITOR MARIÑELARENA: 7 urte

Etxarri-Aranaz-Ikastola «Andremari»

## EUSKALTZAINDIA

### Joan Bautista Gamiz-en Ospakizunak Araban

Joan Bautista Gamiz arabar olerkariaren berrehugarren urteburua gogoratu, Euskaltzaindiak bere hileroako batzarra Gasteizen egin zuen, bere Ordezkaritzan, apirilaren 27an.

Batzarrean gal hauek erabil ziren (har-emanetakoez gainera):  
Denda izendegian azterketari buru eman zitzaion. Euskaltzaindiak onartutako izendegi hau lehen-bai-lehen argitaratzea erabaki zen.  
Alta Goikoetxea-Maizta euskaltzain laguntzaileak txosten bat irakurri zuen, Joan Bautista Gamiz-en bizitza eta idazlan buruz.  
H. Knorr jaunak lan bat irakurri zuen, J. Bta. Gamiz-en aditzaile formak aztertuz.  
Alfonso Irigoyen euskaltzain jaunak, Zigoitiako euskeratik bide hartuz, azterpen bat egin zuen honako puntu honi buruz: «Sintagma plurala diribatuetan».  
Bukatzeko, Kepa Enbeita euskaltzain laguntzaileak aintzismo bat irakurri zuen urkebutaizko toki-izenen buruz.

Hurrengo igandean, berriz, apirilaren 29an, Sabando-ko herrixkan J. Bta. Gamiz-i gorazarre bat eskaini zitzaion.

Eguerdiko hamabietan, Meza konzelebaturua euskeraz, herriko elizan, Coro Arabako parte hartuz, Ondoren oroiturri bat agertu zuen. Bertan zuden Arabako Gobernadore, Diputazio Lehenkari, zerbait euskaltzain, euskaltzake, Sabandoar, albo-herrari eta Gasteiztik etortitako makina bat jende, Alta Goikoetxea-Maizak hitzaldi egoki bat egin zuen, arabar honen bizitza eta lanak aipatuz. Arabako Diputazioko txistulari eta dantzariak beren saioekin gorazarrezko jaialdi hura burutu zuten.

(Euskaltzaindiaren Prensa Bulegoko Adria)

## LOS ANGELES-eko Aldizkari zaharretik geiago (VII)

1893 - urteko ESKUALERRIA estekaririk zenbat berri iritziagari sartuko dugu berriz ere, California-ko berri zahar horiek dakigulako gogotik irakurtzen dituzteia nafar askok.

6-garren Numero hortan, ingelesez, alemanez eta hemengo erdaraz ere, kasatuta nagusiak lehen orrialdeburuan jerra hauek ezartzen dituen:

«El único periódico Bascongado publicado en la América del Norte.  
«Parece (aparece) en LOS ANGELES, California, el sábado de cada semana».

Abuztuaren 19-ko numero hortan, Andoedena Maria Abuztuakari, GOYTINO jaunak bertu hauek dedikatzen diozka:

«Norat zoaz Oh Biryinal Gu utzirik, — Izar ederrez zure soina — Apaindurikan? Et-aingueruez, zure bama — Goraturikan? — Ba badakigu, ama onal — Norat igan zan, Lagun gaitzazu, Erreguinal, — Zerutarikan, (J. P. Goytino, Los Angelesen).

«Han Hemenka.  
«Bihar izanen dire (1893-VIII-20-a) Frantzia guzian deputatuen izendatzea (Elektzio-neak). Ah! zer tarrapatat eta zer nahaskerarik! Agian gure herritarrek zerbizari leial eta fidelak hautatuko dituzte Eskualdunen abantailatan Parisen kordokatuko (saiatuko) direnak... Eskuaherriko bozemaileek agian bazterret emanen dituzte, lehena-goko idera zaharrak, eta oroituko, Frantzia bake beharretan dela, eta Kanbarar-at behar dituzte deputatu zu-

hur eta ezagutuak igorri, Eskuaherria ahal bezenbat fagoratuak duten guziona.

«Errepublikan Frantzia, ongi segurturik yarrira da, eta Gubernamendua ontuko duten guziona batzatu, Parisera: igortzea da, bozemaile guzilen eginbidea, Deputatu guetia, guziona xuxena baldin bada, herriko sinesteak errespetatzen dituen, erlisione horatuz, zer inportatu du gorria edo xuria izanik ere?»

«Segurki ezdugu erran nehi, behar direla bozak nola nahika eman, helzen den loanes edo Piarrea-zar izendatuz. Ez, ezdugu hola pensatzen! Baina bozemaileak oroituko dire, noizpait Gubernamenduan ganik zenbat fagore beharko dutela behar bada, eta fagore horiek erre-xago erdietsiko direla, Gubernamenduan kontra yarririk ez diren Deputatuen ganik. Ezda Doktor izan behar presuna bat gauza ximple horren konprentzeko!

«Gure Eskuaherriko herritar aintzek uste dute, Errepublikan beraz Gubernamendua zerra dela eta erlisionearen etsaia. Baina badire uruski Errepublikan onak! Huna hemen gure Erresumandun gubernamendua; denek libertate osoa dugu; elizarat joan nahi duena libre da. Gure Artxapezpiku, apezpiku eta apezak denak, Errepublikanoak dire eta ezukite deusetan Gubernamenduen kanbia ikusi nahi.

«Legue a ren aitzinean denak igual gara; gure enpleatu guzirik guk deitzen ditugu (izendatzen eta autatzen), Presidentaren ganik hasz, eta ez guirelarik ofiziale (enpleatu) batez kontent, ondoko boz-emailetan (Elektzionatean) promentzara igortzen

dugu. (a paseo).  
«Badakigu Frantziako Errepublikak ezdeia perfektu luntan — baina makurrak ez dire xuxenduko, Parisera igoririk, denak azpiz-gotit ezarri nahi dituzten guziona. Ezduke orai Frantziak guetia zibila batzuk eskas! Beti arranguratzea ezta balio!

«Bertzenaz ere, non dire frantziar horiek baino nahaslagorrik? Hiru frantses di-jen tokian biga badire baten kontra; ezdute elgar aditzen ahal, etsaiaren aitzinean baidiz (Hemen bezalatsu!). Orduan ezda estonagarri (zarri-garri) itant guziez depexetan (berrietan) leitzen badugu: ...Frantziako Ministerioa orori da: President Carnot nardatua dago. Beldur dire Erreboluzioena hasiko den!

«Iduri du Gubernamendua beti zaku-polibora baten gainean jarrira dela, jautzian joaneko prest presta. Fermu ezten Gubernamendua legue tzarrak mailz eguiten ditu, eta denez baldur Iduri du, etsaiez inguratua den presuna bat bezala.

«Baina Frantzia ere gauzak kanbiatzen asiak dire. Aita sainduren boza dute katolikok aditu, eta etzuela balio Gubernamenduari guetia eguitza konprentitu dute. Hortakotz, biharo elektzionatean uste dugu, gure herritarrek Deputatu guziaoak hautatuko dituzten, Frantziako Gubernamendua erkin bakean biziko direnak.


(Garai eta denbora hartan preziskil, Aita sainduk katolikoi gomendatu (obeki esan agindu) zioten, Frantziako Errepublikan onart zezaten, katoliko gelenak, su eta gar horren kontra zudeiak).

A. APAT ETXEBARNE



Pastoralaren ANTZOKIA. (AIDA ARGAZKIA).

## «ZANTXO AZKARRA» Pastoral Xiberoan Euskal giro indartsua



«ZANTXO» Pastoral ALZAIEN. (AIDA ARGAZKIA).

Xiberoa, euskal zazpi probintziarik txikiena, baina kultura sailan ez orrengatik txiroa, aberatsanetakoa baizik. Pastoral, antzina garaiko antzerki zorra ementxe bakanrik egiten dute.

Jorralaren 29'an, Aizy izeneko errian, egin dute azkena. Egun eu, aundia izan da Euskaltzaindiarentzat, aundietako bat. Berriz eango nuke, lasai asko, zerbait gertatzen ari zaigula gure Xiberoa'n. Esnatu zaigu ta bera nortasunaren konzientzia sortzen ari zaio. Egun ontan lendar aundi bat agertu da Xiberoa'n. Joan dan urtean, Maskaradak ikustera-koan, esaten nuan, Xiberoa'ko euskal nortasuna esnatu zala, aur berriz Pastoral ikusi ondoren esango nuke, Xiberoa'n euskal lendar bat sortzen ari dela. Zergatik orri? Lenengo Pastoral, «Chiquito de Cambo», Maule'n ikusi nuen. An oartu nintzan lenengo aldiz zer zan Pastoral bat. Alaitasuna ta gogo ona gertzen zuten mutillak. Ango enparantza ederra erdikiza bete zan. Urrengo Pastoral ikusten Lig'i n gifen. Udara zan ta arrotz asko zuden. Esan gizeakean, arrotzentzat egifa zala. Aurtan berriz, toki danak bete ziran, arrotzik etzegoen, euskaldunetz beterik arkitu genuen. Gizeasme askok zutik egin bear. Xiberoa'ra Pastoral ikustera, egoaldeko euskaldunak eruz jo ziran.

Antzerkia ondo antolatua zegoen. Ikusten zan lana aundia egin zutela. Jantziak danak berriak. Etxiran nolaini moldatu. Ura dana, Aizai'ko gazten lana zan. Indargile berriz bertako apezka argia ta euskaltzale jatorra.

Ezin aztu berriz, erri ontako euskaltzale-tasunak Iraun ba du, zor aundiak ditula, Jauregiberri anderearekin; auxe degu gure Euskaltzale Amak. Larogaita bost urteko andere eu, ia egunero aurreri euskera ematera etortzen zan. Bareri esker bertako gazten epailetan bizirik dago gure izkuntz zorra ta gaur bere ikasle gazte oiek euskaltzaleak ditugu. Erri ontako neska bat da, Maule'ko ikastolaren lenengo andereñoa. Emengo gazteak joan dan udaran, Putxulu apaizarekin

LATXAGA

# «SIOUX» Piel Roja-k eta Marlon Brando

Sioux indioek munduan sortu bide duten maite-giroa edo sinpatia, gure euskaldunok, hemen, etxean bederen, sor bagenezal!

Marlon Brando bat eta baiude gure alde ere jokatzeko!

Zinema-artistak zapuztu duen sarri galanta, Norte-Amerikako Sioux indioei egiten dizkieten bidegabeak nabarmentzeko zapuztu duela, jakina bait da. Bejondeizula Marlon Brando jaunak. Gure Herrian ere zu bezalako bat baliz! Von Bilbao Ipar-Amerikar irakasleak esan berri duenez, Ipar-Amerikan, Herri txikien alde, izugarriko sinpatia eortu omen da.

Aparteko romantiku giroa sortul!

Sioux indio larri gorri edo pieles rojas-en ezbearak, gu, behintzat, biziki ukitzen gaitue. Haien antzeko Herri txiki dohakabea bait gara izan.

Bestalde, euskaldunok, Sioux indioak hain arrotz jo ote ditzakegu?

Lerru gorrikoen mintzaira eta euskaldunona, eldetakotzat ez ahal zituzten jo bada, Charency kondeak eta? (Teori hoiak gero-gozurtuak izango baziren ere).

Bitxi-goa dena. Indioen eskualdera heldu zen euskaldun printzesa ere izan behar omen du. Aita euskaldun eta ama piel roja zituen printzesa xoragarria. Ala aita piel roja, eta ama euskalduna ote zituen! Paperak ez bide daude garbi!

Geure Herri triste honen egoeran, zein Marlon Brando kupituko ote?

Urak leporaino inguratzen ari bait zaizkio Euskerari. Akabe-izateko orrian bait da. H...

ren-en bertan, nexka bati euskeraz egin, eta: «No entiendo el vasco» erantzuna. Vasconce ere ez; vasco esan behar, Jainkoak nehi bazuen.

Eta berriki, Regionalismoari buruz López Rodó-k, Sevilla-n, hautatu duen bideak; ez dirudi gu etsipenetik begiratzeko zuzenena. Okerrean ari ez bait naiz.

### MIXTO-KAJAK BADEREN

Gaurko egunean nexkek direnez gero pipa hartzailek «gartsuena»; mixto kajetat ezin bala gindezke Euskeraren alde?

Mixto kajetat ez ahal dire bada ballatzen, gal-zorian dauden xori eta pisti erraroen berri emateko?

Beraz, mixto kajetat bala gaitzen, euskeraren igal-zoria nexkei adieratzeko, pipa hartzera dihozazena.

Mixto kajak, Arna-Euskeraren aurpegi kupigarria ekar lezake, eta oinean, idazkun edo leyenda hau: «Alaba: kaja hontago mixto buru bakar baten FOSFOROA baneanan, ez nindukenan ukatzen naunan bezala ukatuko, ez. Ene azal oiztat eta itxura pobrez, saltzen ahal naun? Esker gaiztoko alaba!

Ba, jakin ezan: ene gogo edo arima, betiko gaztetasunean eta mardutasunean zegoen. Ni bezalako amarik, inon bestetan, ez dun aurkituko. Jakinen gainean baagoke».

Euskal alaba ergelek, euskara, GEURE XORI BAKAN HORI, lepo egin (degollar) lezaten baino lehen, Rodriguez de la Fuente bat sortuko ez ote?

PREMIN-IURKO

